

EGOERA AZTERKETA



Bake
prozesua
indartzeko
Foro
Soziala

Foro
Social
para impulsar
el proceso
de Paz

Forum
Social
pour impulser
le processus
de paix

Social Forum
to promote the Peace process



Sarrera

Hasi den kurtso politiko biziaren lehen aste hauetan, Foro Sozial Iraunkorretik konponbide prozesua aurkitzen den unea eta datozen hilabeteetarako gure lehentasunak aztertu nahi ditugu, lan egiten ari garen eragile instituzional, politiko, sindikal eta sozial guztiei eta hedabideei helarazten.

Analisi hau uda aurreko hilabeteetan garatu dugun hausnarketa prozesuaren emaitza da. Prozesu oso aberasgarri bat, Foro Sozial Iraunkorrek, ETA desegin ondoren, funtzio hirukoitza izaten jarraitu behar duelaren ideia finkatzen duenak: askatu gabe dauden korapiloak askatzeko esperientziak biltzea, gehiengo sozial eta politikoarekin bat egiten duten ekarpenak egitea eta proposamen hauen inguruan sortu behar diren adostasunak eraikitzeke erraztaile lanak egitea.

Foro Sozial Iraunkorra

18 erakunde eta aktiboki parte hartzen duten 82 pertsonak osatutako sarea batzen dira gune honetan.

Erakunde horien artean, bost sindikatu: ELA, LAB, CCOO, ESK eta Steilas. Erakunde guztien artean 220.000 afiliatu edo bazkide batzen dituzte.

Foro Sozial Iraunkorrek adostasunetan oinarrituz hartzen ditu erabakiak, bereizten duenaren gainetik, beti, batzen duena lehenetsiz. Funtzionamendu horri esker iritsi gara honaino.

Lehen Bi Foro Sozialak 2013 eta 2014 urteetan egin ziren, Lokarrik eta Bake Bideak antolatuta. Adostasun zabala izanik, lehen Foro Sozialak 12 gomendio onartu zituen bere bidea egiteko. 2016ko urtarrilean, III Foro Soziala ospatu zen, armagabetzea ardatz hartuta.

Foro Sozial Iraunkorra 2016ko ekainean sortu eta urrian aurkeztu zen jendaurrean, Donostiako Aiete Jauregian, Bakearen Aldeko Nazioarteko 5. Konferentziaren testuinguruan. Foro Sozial Iraunkorarentzat bide-erakusle dira 2013an finkatutako 12 gomendioak.

Ondoren, IV Foro Soziala garatu zen, preso, iheslari eta deportatuen egoerari buruz, eta V.a, biktima guztien egia, aitortza eta erreparazioa ezagutzeko eskubideari eskainia. 2018ko udaberrian ETA desegin ondoren, Foro Sozial Iraunkorrek barne hausnarketa prozesu bat irekitzea erabaki zuen.

Bizikidetza Demokratikoa “Helburu”

Foro Sozial Iraunkorrean “helburu” dugu bizikidetza. Helburua da, letra larriz, hori delako bere xede nagusia.

Helburu ez ezik bidea ere bada, ziur baikaude ez dagoela besterik. Eta “bizikidetza” terminoari “demokratiko” kalifikatzailea gehitu nahi izaten diogu, justuki, urte askoan ez dugulako bizikidetza demokratikorik izan. Ideia guztiak modu demokratikoan adieraztea posible egingo duen bizikidetza, eskubide berdinetatik abiatuta.

Eraikuntza horretan ba dago oinarritzko printzipio unibertsal bat: bizikidetza giza eskubideen kulturen oinarritu behar da, eta horietako bat bakea da.

Hiru korapilo askatzeke

Helburu hori lortzeko, baina, beharrezkoa da bake bidean aurrera egitea, bizi dugun egoera berria finkatuz.

Ulertzen dugu aipatu bidea egiteko hiru ikuspuntutan aurreratu beharra dagoela:

- Biktima guztiek egia, justizia eta erreparaziorako duten eskubidea. Zentzu honetan gutxienez bi zeregin daude egiteke: lehena, biktima batzuen eta besteen arteko tratuan ematen den diskriminazioarekin amaitzea. Bigarrena, alde bakarreko ikuspegitik biktima guztiak gureak bezala barne hartzen duen ikuspegira joan. Biktima guztiak dira gureak, denonak dira, jendarte osoarenak, eta modu horretan babestu behar ditugu.
- Egun oraindik indarrean den salbuespenezko espetxe politikaren indargabetzea eta preso diren pertsonen politika normalizatu bat ezartzea, legedi arruntean aurreikusitako neurrien bidez.
- Ereku sozialetatik memoria kritiko inklusibo baten eraikuntza sustatzea, errelatu guztiak errespetatuko dituen eta alderdi politikoen artean egun oraindik ematen den errelatoen bataila gainditzea ahalbidetuko duena.

Nazioarteko Erreferentziak

Gure Herria bake prozesu berezi batean dago murgilduta, oso luzea izan den gatazka ziklo baten ondorioak konpondu nahian.

Gure prozesuak ez du parekorik munduan, baina horrek ez digu eragotzi beste esperientzietatik ikasteko eta zenbait gairen inguruan NBEren arauetan inspiratuta egotea.

Testuingurua

2013ko lehen Foro Sozialetik — konponbide prozesua hainbat blokeo egoeretan zela egingakoa— asko aurreratu dugu. Egitate bat da esatea aurrerapen nabarmenak izan direla 2016ko urtarriletik —armagabetzeari buruzko III. Foro Sozial monografikoa— eta Foro Sozial Iraunkorraren sorrera eman zenetik, 2016ko ekainean.

Armagabetze zibilak, presoen gaiari buruzko akordioak, ETAren desegitea, biktimen arteko topaketen inguruko aurrerapenak eta horiek guztiak aitortzeko eztabaidak agertoki berri bat ezarri dute, aldi berean aukerez eta zailtasun berriez beteta.

Aukerak

- Bizikidetzaren eraikuntzan aurrera egiteko jendartearen borondatea (horren adibide, azken hauteskundeak).
- Foro Sozial Iraunkorreko kide diren eragileak lanean jarraitzeko prest izatea.
- Indarkeria adierazle guztien biktima guztien aitortzan izaniko aurrerapenak (bi Legebiltzarrak –lege bien aukerak mugatuak izanik eta Auzitegi Konstituzionalak aurkeztutako errekurtsoen mehatxupear- baita tokiko eremuetan ere).
- Biktimen arteko topaketak (sare sozialak, Deustuko Unibertsitatea, Miramar Jauregia, EITB, Noticias Taldea, Berria, ...) eta adierazpenak: Sarek Miramarren, Etxerat, ETAren 42 biktimen iritzi artikulak, sare sozialak...
- Tokian toki norabide horretan emaniko aurrerapen handiak.
- «Giza eskubideen urraketa berdinen aurrean, eskubide berdinak» ideiarengatik inguruan adostasun zabala.
- EPPKren posizioarekin batera, adostasun sozial, politiko eta instituzional zabala, presoengatik dagokion konponbideari buruz. Gai hau bizikidetzaren ikuspegitik landu behar da.
- Madrilen osatu litekeen Gobernu berria. Gehiengo nahikoarekin eta 4 urteko ikuspegiarekin (Kongresu espainolean gehiengo osoarekin kontaktuz –PSOE, Unidas Podemos, ERC-EH Bildu, PNV, Junts per Catalunya, eta beste batzuk- afera hauekiko aldeko jarrerarekin).

Zailtasun berriak

- Jendartearen ondorioak atera gabe aurrera begira jartzeko arriskua, bizikidetzaren demokratiko baten eraikuntza ahulduko lukeela.

- Gazteria oso urrun dago gai hauetatik.
- “Errelatoaren bataila” nola ezartzen ari den, bestelako gaietan aurrera egitea baldintzazteraino (biktimak eta presoak). Errelato inklusibo baterantz aurrera egiteko baldintzak gaur gaurkoz eskasak dira.
- «Euskal gaiaren» erabilera estatu mailan, hauteskunde giroko liskarretan. Iraganeko eskemak elikatzen du.
- Biktimen eskubideen inguruan guztien adostasuna edukirik gabeko adiera huts batean geratzea: Eusko Legebiltzarraren eta Nafarroako Legebiltzarraren legeei errekurtsioak.
- Presoen aferarekiko aterabidea egungo statu quo-an geratzea: gradu eboluzioan mantso, 2. graduko espetxeetara hurbilketa, 2. gradutik 3erako garapen proposamena garai- le eta garaituen eskema batean sakontzea helburu duena, afera betikotuz.
- Errelatoaren gaia kontu hau baldintzatzan duen alderdia izatea hurrengo bi hauteskun- deetan: hauteskunde orokorrak eta autonomikoak.
- Ziurgabetasuna Madrilen eratuko den gobernuaren inguruan

“Erdiko errail bat” eraikitzea

Testuinguru honetan eta aipatu korapiloak askatzeke, beharrezkoa da erdiko errail bat eraikitzen jarraitzea.

Gure herriak urte gehiegi eman ditu lubakietan. Sektore jakin batzuek oraindik posizio horietan jarraitzen dute, eta hainbatetan, lubaki horiek bistaratu egiten dira, indar betean.

Nola eraikitzen da? Arrazoizko proposamenak eginez, jendartearen gehiengoa ordezka- tuko dutenak, proposamen inklusiboak, garaile eta garaituen logikak alde batera utziko dituztenak, desberdinak biltzeko espazio publiko eta pribatuak eskainiz eta sortzen diren korapilak askatuz,...

Eta eginkizun hau ez dagokigu soilik eremu honetan gabiltzanoi. Aktore sozial guztion egitekoa da.

Ondorioak

Foro Sozial Iraunkorrean ziur gaude, hain zuzen ere, herri honek eta hemengo jendarteak sufritu izan duenagatik, hain izan baita sakona zauria, baldintza hobeto gaudela herri hobe bat eraikitzeko.

Herri enpatikoago bat, harrera kultura batekin, desberdinarekiko errespetuz, kalitate demokratiko handiagoarekin, giza eskubideen errespetuarekiko ardura betean oinarrituta kulturen oinarritua, bakearen balioekin konbentzitua.

Laburbilduz: pertsona gisa askoz hobeak izatea ahalbidetuko digun jendarte bat eraikitzea. Aldi historiko honetan kolektiboki asmatzea besterik ez dugu behar. Eta uste dugu, jendarte gisa, inteligentzia kolektibo handia dugula hori lortzeko.





Bake
prozesua
indartzeko
Foro
Soziala

Foro
Social
para impulsar
el proceso
de Paz

Forum
Social
pour impulser
le processus
de paix

Social Forum
to promote the Peace process